

BERTSOLARITZA IKASTETXEAN

"GU ERE BERTSOTAN" EGITASMOA



bertsozale
elkartea

BERTSOLARITZA IKASTETXEAN

Proiektuaren ibilbidea



Nafarroan abiatu zen proiektua 1985ean, ikastetxeengandik jasotako eskariari erantzunez.


Helburua: bertsolaritzaren bidez haurren hizkuntza gaitasunean eta, bereziki, ahozkotasunean eragitea.

Urteetako ibilbideari esker, euskararen eremu osora zabaldu gara; Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Araban, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan, ikasturtero 20.000 ikaslek baino gehiagok lantzen du bertsolaritza bere ikastetxean, Bertsozale Elkarteko 45 irakasleren eskutik. 400 ikastetxe eta 200 udal ingururekin ari gara elkarlanean, egoera soziolinguistiko oso ezberdinetan.

Arabian zehazki, 19 herritan lantzen dugu bertsolaritza 38 ikastetxetako 2542 ikaslerekin. Arabako Bertsozale Elkarteko 5 irakaslek esku-hartzen dute ikasgelatan.

Bidelagun ditugu zentro publikoak, ikastola kontzertatuak zein kristau eskolak. Hitzarmenak ditugu Nafarroako Hezkuntza Sailarekin zein Ikastolen Elkartearekin.

Gure ikasmaterialak 2011. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren Ixaka Lopez Mendizabal Saria jaso zuen.



Helburuak



IKASLEEI DAGOKIENEZ...

- Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza izatea eta zaletasuna piztea.
- Euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako kompetentzia (bereziki ahozotasuna) garatzea.
- Jendaurreko emanaldi bat burutzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea.

IKASTETXE ZEIN HERRI MAILAN...

- Bertsolaritza sustatzea ikastetxean eta herrian.
- Ikastetxeaz kanpo haurrek jarraipena ematea zaletasun horri.
- Euskararen erabilera bultzatzea.



Bertsozale Elkartek zer eskaintzen du




Bereziki Lehen Hezkuntzako 3. zikloari bideratuta (5. eta 6. mailak), bertsolaritza klaseak ematen dira ikasturte osoan, 15 saio, hamabostean behineko maiztasunez. Euskara ikasgaiaren barruan izan ohi da, eta ikastetxearekin adosten da ordutegia.

Bertsozale Elkarteko irakaslea etortzen da hamabostero ikasgelako dinamika lideratzera; tutorea ere gelan izaten da. Hala, bi irakasleen artean aukera dute ikasturtean zehar egingo diren ekimenak adosteko eta proiektua ikasgelara egokitzeko.

Irakasle espezialistek bertsolaritzaren ezagutza sakona dute eta formazio saioak jasotzen dituzte Bertsozale Elkartek antolatuta.



Oinarri pedagogikoa: *Bertsolaritzaren Curriculum*a



2008an argitaratu zen *Bertsolaritzaren Curriculum*a Lehener Hezkuntza lana. Bertsozale Elkartek HUHEZI-ren aholkularitza pedagogikoaz egina da, eta bat dator *Oinarrizko Curriculum Diseinuaren* zein *Euskal Curriculumaren* oinarriekin.

*Bertsolaritzaren Curriculum*ak zehazten ditu proiektu honen ardatz metodologikoak, bertsolaritzaren bidez lantzen diren arloak, arlo bakoitzeko edukiak eta ebaluazio adierazleak.

Bertsolaritzaren bidez oinarrizko hezkuntza gaitasunak lantzen dira, Lehener Hezkuntzako Curriculumean jasota datozenak:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna – Ahozkotasuna
- Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- Ikasten ikasteko gaitasuna.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.



Zer lantzen da bertsolaritzaren bidez?



Lau arlo lantzen dira, arlo bakoitzaren baitan hainbat edukitan sakonduz: jarrerazko, kontzeptuzko zein prozedurazko edukiak.

Bertsolaritzaren bidez lantzen diren arloak:

HIZKUNTZA

Diskurtoak jarrera kritikoz aztertzea, testuaren ezaugarriak identifikatzea, diskurtoak eraikitzea (ahoz zein idatziz), euskalkien aniztasunaz jabetzea, sentsibiltate estetikoak lantzea...

KULTURA

Kantu inprobisatua kultura errealitate unibertsal gisa ezagutzea, tradizioko sorkuntzak oroimenaren bidez barneratu eta taldean kantatzea, bertsoa osagai duten euskal ohituretan parte hartzea...

MUSIKA

Doinuen ondarea, entzute aktiboa, intonazioa eta igorpena, isiltasuna, abestiak jendurrean interpretatzea...

TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK

Jendurrekotasuna, dialektika eta lankidetzak, besteen lekuan jartzea, balioak, parekidetasuna, zentzu kritikoa, aniztasuna, sormena...



Nola lantzen da ikasgelan?



Ikasleei ahozko zein idatzizko eredu errealak eskaintzen zaizkie: bat-bateko saioak ikusiz, edo bertso zaharrak zein berriak entzun eta taldean abestuz. Bertsoak egiteko oinarritzko teknika lantzen da, baita jendaurrean nola eman ere.

Ikasleak, beren testuak ekoiztu eta jendaurrean eman ditzaten, egoera komunikatibo errealean jartzen dira. Hala nola herriko ohituretan parte hartuz (Neguko Eskea...), ikastetxeko ekitaldietan bertsoak abestuz (Euskararen Eguna, inauteriak...) edo ikasturte amaieran gurasoen aurrean jaialdia eskainiz.



Ikasmateriala



Ikus-entzunezko materialak baliatzen dira; ikasgelan arbel digitala izatea komenigarria da.

Ikasle bakoitzak bertsolaritza lantzeko ikasliburua du; bertsoaren teknika eta hizkuntza lantzeko ariketak dakartza, eta ikasturtean zehar sortutako bertsoak ere bertan jasotzen dira idatziz.

Gure ikasmateriala EAEko Hezkuntza Sailak saritu egin zuen 2011. urtean (*Ixaka Lopez Mendizabal Saria, 2011*).

Bertsozale Elkarteko irakasle lantaldeekin, ikus-entzunezko materialak sortzen eta ikasliburua berritzen dihardugu urtez urte. Irakasle bakoitzak materiala ikasgelako errealitatera egokitzen du.

2016-2017an, 5.mailatan "Mundu bat Bertso1" ikasmaterial berria erabiltzen hasiko gara eta 6.mailan "Gu ere Bertsotan2" ikasliburua erabiliko dugu.



Ekintza osagarriak



Ikasgelako lana indartzeko eta ikasleak jendaurrean trebatzen hasteko, ekintza osagarriok egiteko aukera ere ematen zaie ikastetxeei.

BERTSO SAIOA

Ikastetxeak aukera du, ikasturtean zehar, bere ikasleentzat bertso saioa antolatzeko. Haur askorentzat zuzenean bertso saio batean parte hartzen duten lehen aldia izan ohi da. Helburu nagusiak hurrek saioaz gozatzea, entzute aktiboa lantzea eta bertsolaritzaren oinarritzko ezagutza berenganatzea dira.

LANKU bertso zerbitzuen bidez kontratatzen eta kudeatzen da bertso saioa.



ESKUALDEKO IKASLEEN BERTSO BILDUMA: BILBERTSOAK

Proiektuan parte hartzen duten eskualdeko ikastetxe guztien artean, ikasleek jarritako bertsoekin bilduma bat osatzen da eta, ikasturte amaieran, ikasle bakoitzari ematen zaio oroigarri gisa. Ikasgela bakoitzak bere bertso sorta prestatzen du, taldeko argazkiarekin batera bilduman agertzeko.

Bertsolaritza klaseetan prestatzen dira bildumarako bertsoak.

Arabako Bertsozale Elkarteak arduratzen da bildumaren ekoizpen lanaz eta banaketaz.

BERTSO-ESKOLA /BAT-BATEKO TALDEA

Ikastetxeak bere ikasleei bat-bateko taldea / bertso-eskola eskaintzeko aukera du . Taldeon helburua ikasgelan zaletu diren haurrek bertsoaren lanketari jarraipena eman ahal izatea da . Bertsolaritza irakasleak ematen ditu klaseak, eskola orduz kanpo, bertsoetan bat-batean sakonduz.

Kopuruz talde txikiak diren arren (biziki zaletu diren ikasleak elkartzen baitira), kualitatiboki betetzen duten funtzioa garrantzitsua da oso: ikasleen euskararekiko atxikimendua sendotzen da, ahozkotasunean eta jendurrekotasunean sakontzeko aukera ematen zaie, eta gainerako gaztetxoentzat erreferente bihurtzen dira. Ikasleoi euskaraz zuzendu ohi zaizkie adinkideak; ikastetxean euskara espazio informaletara zabaltzen eragin dezaketen ikasleak baitira.

Arabako Bertsozale Elkarteak arduratzen da bertso-eskolaren/bat-bateko taldearen kudeaketaz.



Ebaluazioa



Ikasturtean zehar bertsolaritza irakasleak eta tutoreak harreman zuzena dute, sortzen diren gorabeherak bideratzeko. Ikastetxeak zein udalak edozein unetan jo dezakete Bertsozale Elkartera.

Ikasturte amaieran ikastetxe bakoitzak ebaluazio orria betetzen du, proiektuaren alor bakoitza ebaluatu eta ekarpenak egiteko aukera izanez.

Bertsolaritza irakasleak ikastetxeari dagokion ebaluazioa idatziz aurkezten dio zentroari.

Udalari bertako ikastetxeengandik jasotako ebaluazioak eta bertsolaritza irakaslearenak idatziz aurkezten zaizkio.

Zer da ikastetxeek zein udalek gehien baloratzen dutena

HIZKUNTZA LANTZEKO EMATEN DITUEN AUKERAK

- Metodologia dinamikoa da. Ikasgelako errutina apurtzen du.
- Hizkuntza modu ludikoan eta erakargarrian lantzen da.
- Ikasleek gustuko dute bertsolaritza klasea.

BERTSOLARITZA IRAKASLEA

- Hurrekin lortzen duen hurbiltasuna eta gelan jartzen duen umorea.
- Ikastetxearekiko duen hurbiltasuna, zentroak antolatzen dituen ekitaldietan parte hartuz.

EKINTZA OSAGARRIAK

- Asko estimatzen dituzte ikasturte amaierako jaialdiak, bertso saioak, ikastetxeko ospakizunetan egiten diren emanaldiak...



Bertsozale Elkartea



2300 bazkide, 100 borondatezko lankide eta 70 profesional biltzen dituen irabazi asmorik gabeko kultur elkarte da. Bertsozaritza euskararen lurralde osoan sustatzeko lanean ari da. Bideratzen dituen proiektuak, besteak beste:

- Hitzetik Hortzera telebista saioa
- www.bertsozale.eus eta www.bertsoa.eus
- Bertsolari txapelketak
- Bertso Eguna
- Bertsozaritza Ikastetxean
- Bertso-eskolak
- Bertso udalekuak. Bertso-eskolen Egunak. Topaketak. Barnetegiak.
- Xenpelar Dokumentazio Zentroa. bdb.bertsozale.eus
- Mintzola Bertsozaritzaren Ikergunea. www.mintzola.eus
- Jardunaldiak. Hitzaldiak. Ikastaroak
- Munduko inprobisatzaileen Topaketak
- Lanku zerbitzuak: bertso saioen antolaketa, bertsolarien kontratazioa, emanaldi bereziak, argitalpenak. www.lanku.eus





Harremanetarako

Uxue Díaz de Cerio

TRANSMISIO ERAGILEA

945-01 05 05 / 688 61 65 31

araba@bertsozale.eus

www.bertsozale.eus/araba

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA



arabako
bertsozale
elkartea